

EUSKARALDIA

**HITZAK DANTZAN
JARTZEKO PREST**





ALEA 167

2018-10-11 OSTEGUNA

AZALEKO IRUDIA:
ALEA

Aurkibidea

- 4 Euskaraldia, arnas luzeko lan ildoak.
- 6 Ekimenean izena emateko aukera ezberdinak.
- 8 Ahobizi zein Belarriprest roletarako gomendioak.
- 10 Elkarriketa: Leire Sanjurjo, Euskaraldiko Arabako koordinatzailea.
- 14 Iritzia: Oier Azkarraga eta Alex Vadillo: "Euskaraz bizitzeko hautua egina dugu".
- 16 Iritzia: Manex Agirre: "Ba al dago bizitzarik hiritik kanpora?".
- 18 Sarean: #euskaraldia.
- 20 Iruditan: Osatuz doa Arabako albuma.
- 22 Gasteizko hamaikakoa, gertutik.
- 28 Irakurleen txokoa.
- 30 Agenda.

Bultzatzaileak



berria goiena

Argitaratzailea

Arabako Alea Komunikazio Taldea

Zuzendaria

Aritz Martinez de Luna

Erredakzioa

Anakoz Amenabar

Miriam Biteri

Esti Lanao

Estibx Ugarte

Juanma Gallego

Komertziala

Erlantz Anda

Inprenta

GERTU inprimategia

Tirada: 20.000 ale

EGOITZA NAGUSIA

Eskola kalea 10, 7.bulegoa

01001 Gasteiz (ARABA)

Tel.: 945 71 60 09

info@alea.eus

PUBLIZITATEA

publizitatea@alea.eus

Tel.: 695 63 28 62

HARPIDETZA

harpidetza@alea.eus

Tel.: 945 71 60 09

Lege Gordailua: VI-32-2015

ISSN: 2386-8961

Asteko kolaboratzaileak: Manex Agirre, Oier Azkarraga eta Alex Vadillo.

ALEAk ez ditu bere gain hartzen IRITZIA saillean edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Laguntzaileak



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

*Araba da
erronka*



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

**Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua**

Arnas luzeko lanaren lehen mugarrria

Euskarazko ariketa sozial praktikoa martxan jarriko da Euskal Herria osoan, azaroaren 23tik abenduaren 3ra; aitzakia izango dute euskaldun askok hizkuntz-ohiturak aldatzea posible dela ikusteko, eta euskararen normalizazioaren bidean urrats garrantzitsua egiteko. Ahobiziak eta Belarriprestak izango dira protagonistak.




Zerutik eroritako ekimena da? Euskaldunen bat-bateko zorabioaren emaitza? Euskararen erabilera sustatzeko enegarren kanpaina? Jaitxo bat egiteko aitzakia berria? Ez. Euskaraldia ez da epe laburreko kanpaina bat, arnas luzeko lan ildo bat baizik. Hala definitu du Pello Jauregi EHUKo Hezkuntza Zientzietan doktoreak eta Euskaraldiaren oinarri teorikoak ezartzen lagundu duen irakasleak; hainbat herritan sortutako batzordeei zuzenduriko mintegietan azaldu du Euskaraldiaren funtsa: "Gu orain bagoaz bide baten lehenengo harria jartzera, baina bide horrek urteak beharko ditu; orain gizartera zabalduko ditugun mezuak, praktikak... horiek garapen bat behar dute urteetan zehar. Ez dugu lortuko aurten gizarateak ulertzea zer den Belarriprest, zer den Ahobizi....".

Etorkizunera begirako apustua da, beraz, eta euskalgintzan emandako ikuspegi aldaketa baten eskutik dator, hizkuntzaren ulermenean zentratutako ikuspegi bat, hain zuzen: "Jendeak euskaraz ulertzea gakoa da erabileraren auzia desblokeatzeko" azaldu du Jauregik. Hartara, hogei urteko perspektibarekin, Euskal Herria Belarriprest eremu bat izatera iristea da erronka, hain zuzen jende guztiak ulertzea euskara, erdizka gutxienez, "egoera hori ematen denean orduan hasiko da benetan euskararen normalizazioaren partida. Oraindik ez gara ari normalizazioaren partida jokatzeko, egiten ari garena da baldintzak sortzen partida jokatu ahal izateko". Ahobiziak dira partidaren jokalaria nagusiak, baina ingurunean denak behar dira Belarriprest izatea. ■

Usteak aldatzeko euskarazko praktika bat

Euskarazko ariketa sozial praktiko bat da Euskaraldia, Euskal Herri osoan emango dena, azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean. Nahiz eta soilik hamaika eguneko praktika izan, aitzaki bat izango da jende askok hizkuntz-ohiturak aldatzeko, eta ohitura horien aldaketarekin batera etorriko da, baita ere, pertzepzioen aldaketa. Izan ere, jende askok pentsatzen du hizkuntz-ohiturak aldatzea oso zaila dela, ezinezkoa dela, eta uste hori desmuntatzea bilatzen du Euskaraldiak; aitzakia bat ematen dio, giro babestu batean, gaztelaniaz egiten duenari euskaraz egiten hasteko. Zentzu horretan, Euskaraldia erronka bat onartzeko proposamena da, kontratu sozial bat proposatzen du, esperimentu bat egiteko eta praktika bat egiteko, pentsatzen delako sorturiko giroarekin jende askok ikusiko duela egingarria hizkuntz-ohiturak aldatzea.

Euskaldunen bilakaera, Araban



ITURRIA: EAEko VI. Inkesta Soziolinguistikoa. ARITZ MTZ. DE LUNA

Hirukoiztu egin da euskaldunen kopurua

Euskararen normalizazioaren partida jokatzeko ezinbesteko faktorea da hizkuntza ezagutzea. Horretan jauzi handia eman du Arabak azken urteotan. VI. Inkesta Soziolinguistikoa arabera, 1991n Araban euskaldunak %7 ziren, eta, gaur egun, oster, %19,2. Hau da, lurraldean azken 30 urteetan ia hirukoiztu egin da euskaldunen kopurua, eta egun Arabako biztanleriaren bostena da euskalduna. Gasteizen, aldiz, %17,9 dira euskaldunak. Era berean, Araban %18,4 euskaldun hartzaileak direla dio txostenak, eta, hortaz, Arabako biztanleen %37 euskara ulertzeko gai da. Adinaren arabera bilakaerari dagokionez, gazteenen euskalduntzea agerikoa dela dio inkestak. Araban, esaterako, 16-24 urte bitartekoen artean hamarretik sei baino gehiago euskaldunak dira (% 60,1).

Zer egin Euskaraldian parte hartzeko?

Lehendabizi zure rola zein izango den erabaki behar duzu. Hau da Ahobizi edo Belarriprest izango zaren aukeratu behar duzu. Ondoren izen-emateko aukera ezberdinak dituzu eskura.

INTERNET BIDEZ:

Sarean eman dezakezu izena: **www.euskaraldia.eus** orrialdean.

MENDIALDEAN

Arraia-Maeztun: Los Roturos eta Izki tabernetan; udaletxean, 08:00etatik 15:00etara. Eta liburutegian, astearte eta ostegunetan, 17:00etatik 18:30era; eta larunbatetan, 11:30etik 13:30era.

AÑANAN

Idatzi anana@euskaraldia.eus postara, eta jakinaraziko dizute zein duzun izena emateko tokirik gertukoena.

GASTEIZEN

Gasteizko gizarte-etxe guztietan. Gainera, Oihaneder Euskararen Etxean, astelehenetik ostiralera 17:30etik 20:30era izena emateko aukeraz aparte, zalantzak argitzeko gune bat egongo da.

LAUTADAN

Webgunearen bitartez, www.lautada.euskaraldia.eus, edo Lautadako herrietan jarriko dituzten postuetan.

GORBEIALDEAN

Aramaion, udaletxean eta liburutegian; Legution, udaletxean eta liburutegian; Zigoitian, gizarte eta kultur zentroan; Urkabustaizen, udaletxean eta liburutegian; Arratzua-Ubarrundian, Sologanan; eta Zuian, udaletxean eta liburutegian.



EGIBIDEk euskaraldiarekin bat



DBH - Batxilergoa - Lanbide Heziketa



ARRIAGA - JESUS OBRERO - MENDIZORROTZA - MOLINUEVO - NIEVES CANO

www.egibide.eus

Jimmy Jazz
ARROSTEN DU
PRESENTA

CLUBSON
HFMN

MUSIKAL
ROCKZONE

VITORIA
GASTEIZ
IRON CAPITAL

GASTEIZ CALLING 2019

VIERNES/OSTIRALA SÁBADO/LARUNBATA

REFUSED

SUICIDAL
TENDENCIES

SOZIEDAD
ALKOHOLIKA

GBH

DAG NASTY
COCKNEY
REJECTS

NATIONS ON FIRE

NOTONTOUR

XXL

RAT-ZINGER

NOFX

AGNOSTIC
FRONT

PROPAGANDHI

SEGIS

STREET
DOGS

The Boys

BAD CO.

PROJECT

DEAD TO ME

Lion's Law

ADRENALIZED

AZAROAK 9 & 10 NOVIEMBRE VITORIA-GASTEIZ
IRADIER ARENA

BONO 2DÍAS/2 EGUNETAKO BONO
ANTICIPADA 69€ HASTAS / AURREZ 69€ HASTAK
TAQUILLA 80€ / LEIHATILAN 80€

ENTRADA 1DÍA/EGUN BATEKO SARRERA
ANTICIPADA 49€ HASTAS / AURREZ 49€ HASTAK
TAQUILLA 55€ / LEIHATILAN 55€

TICKETS + INFO
GASTEIZCALLING.COM

JOEL
ABAD



Ahobizi izatea erabakitzen baduzu, 11 egunetan euskaraz egingo diezu euskara ulertzeko gai diren solaskide guztiei. Ezezagunei berriz, lehen hitzak euskaraz egingo dizkiezu eta euskara ulertzen badute, hurrengoak ere bai.

1

Ohiturak aldatuko ditugu.

Posible da. Ariketa taldean egingo dugu, ez zara bakarrik egongo.

2

Ikurra eta hitza.

11 egunez eraman txapa agerian eta lehen hitza beti euskaraz.

3

Aztertu zure ohiturak eta ekin euskarari.

Aztertu norekin eta zertarako erabiltzen duzun euskara. Ohiturak aldatzeko prest?

4

Zailtasunen aurrean ez etsi.

Helburua lortu edo ez, saiatzeak merezi du.

5

Baztertu aurreiritziak eta eutsi erabakiari.

Aztertu nola gainditu zure aurreiritziak. Euskara ezustekoz beterik dago.

6

Azaldu ingurukoei zein erabaki hartu duzun.

Ingurukoek zer egingno duzun jakiteak lagunduko dizu.

7

Adostu ariketa ingurukoekin.

Hurbilekoekin hasi eta ekin inertziak apurtzeari. Gonbidatu ingurukoak ariketan parte hartzera.

8

Ekartrukatu esperientziak beste parte hartzaileekin.

Jaso bizipenak eta partekatu gainontzeko Ahobizi eta Belarriprestekin.

9

Elkarrizketa elebidunetan euskaraz.

Posible da hizkuntza desorekak euskararantz orekatzea.

10

Aurkeztu Euskaraldia ezagutzen ez dutenei.

Azaldu zure hautua eta normaltasunez jokatu, ez da bestelako azalpenik behar.

11

Eutsi euskarari.

Ekin (lehen hitza euskaraz), adierazi (euskarari eutsiko diozula), egiaztatu (solaskideak ulertu dizula), esan (beste modu batean, solaskideak ulertzeko zailtasuna duenean).



Belarriprest izatea erabakitzen baduzu, 11 egunetan euskal hiztun guztiei zuri euskaraz egin diezazutela eskatuko diezu. Zure portaerak eta jarrerak ateak zabalduko ditu, besteei hautatzeko aukera emango diezu eta zuri espazio berriak zabalduko zaizkizu.

#gomendioak

1 Ohiturak aldatuko ditugu.
Posible da. Ariketa taldean egingo dugu. Ez dago ezinezkorik.

2 Ikurra eta hitza.
11 egunez eraman txapa agerian eta lehen hitza beti euskaraz.

3 Aztertu zure ohiturak eta ekin euskarari.
Aztertu norekin eta zertarako erabiltzen duzun euskara. Ohiturak aldatzeko prest?

4 Zailtasunen aurrean ez etsi, eutsi.
Helburua lortu edo ez, saiatzek merezi du.

5 Baztertu aurreiritziak eta eutsi erabakiari.
Aztertu nola gainditu zure aurreiritziak. Euskara ezustekoz beterik dago.

6 Adostu ariketa ingurukoekin.
Hurbilekoekin hasi eta ekin inertziak apurtzeari. Gonbidatu ingurukoak ariketan parte hartzera.

7 Belarriprest jokaera aktiboa da.
Adierazi hurbilekoei eta solaskideei euskara jaso nahi duzula.

8 Elkartrukatu esperientziak beste parte hartzaileekin.
Jaso bizipenak eta partekatu gainontzeko Ahobizi eta Belarriprestekin.

9 Elkarriketa elebidunetan eskatu euskara.
Egoera bakoitzean eroso zauden hizkuntza erabili ezazu baina eskatu eskatu euskaldunei zuri euskaraz hitz egiteko.

10 Zure euskara da euskararik onena.
Praktikatu euskara. Belarriprest zara, egizu euskaraz nahi duzun guztietan.

11 Eutsi euskarari.
Ekin (bota seinalea, lehen hitza euskaraz egiten), adierazi (euskara ulertzen duzula, jaso nahi duzula), egiaztatu (solaskideekin elkar ulertzen ari zarete), eskatu (ulertzeko zailtasunak dituzunean, beste modu batean esateko, baina euskaraz), gonbidatu solaskideak euskaraz jarraitzera).

"Hamaika egunez eusten badiogu, aldea nabarituko dugu"

LEIRE SANJURJO EUSKARALDIKO ARABAKO KOORDINATZAILEA

Batzordez batzorde, Arabako txoko guztiak aktibatzeko asmoz heldu da Euskalaldia; errealitate ugari dauden arren, guztietan jakin izan dute bertakoetara "egokitzen", Sanjurjok azaldu moduan. Arabako Errioxan, esaterako, hamabost batzorde ari dira lanean koordinazio talde batek gidatuta.

Testua: **Anakoz Amenabar** Argazkia: **Aritz Martinez de Luna**

Hamaika egunez eustea "gakoa" izango da hizkuntza-ohituretan eragiteko, Leire Sanjurjo (Laudio, 1993) Arabako Euskaraldiko koordinatzailearen ustez. "Errealistak izan behar gara, egun horietako mailarekin ez dugu jarraituko hamabigarrenean, baina nabarituko da aldea, eta pausotxo bat eman dugu-la ikusiko dugu".

Aurreikuspenak betetzen ari dira izen-ematean? Zer sentsazio duzu?

Kuadrilla guztietan eman dute izena herritarrek, eta horrek esan nahi du informazioa heltzen ari dela Araba osora eta batzordeak lan ona egiten ari direla, duda barik. Nabaritzen da hurbiltzen ari dela Euskalaldia; pilak jartzen ari gara batzordeetan, herritarrek hurbilago ikusi eta sentitzen hasi direlako.

Zalantza asko daude oraindik?

Bai, badaude. Baina normala da. Hau ez da ariketa erraza, ez da kontzertu batera gonbidatzea moduan. Pentsatu behar da, hausnartu behar da, erabakiak hartu behar dira, eta, beraz, normala da. Galderak egin behar dira, eta erantzuna badaukate.

Zergatik da berezia Euskalaldia orain arte egindako ariketen aldean?

Orain arte egindakoak gehien bat euskararen ezagutza hedatzera bideratu dira, eta Euskalaldia dator erabilera hedatzera eta ohiturak aldatzera. Horretan orain arte ez gara sartu. Beste alde batetik, helduentzako ariketa bat izateak euskara gure zelaian jartzen du, eta hori ere ezberdina da. Pasako gara, lehenengo aldiz, euskararen alde egotetik euskararen alde egitera.

Beharbada zalantza nagusia 'ahobizi' eta 'belarri-prest'-ek sortzen dute, Euskaraldiko bi protagonista nagusiek. Zein da desberdintasuna? Nola aukeratu bat ala bestea?

Bata edo bestea aukeratzeko garaian, argi utzi behar dena da ez dela gaitasun kontua. Ni Euskaltzaindiako buru izan naiteke eta *belarriprest*, edo euskaltegian pasa den urtean hasi eta *ahobizi* izan naiteke. Ez da gaitasunaren arabera hartu beharreko erabaki bat, baizik eta nik egingo dudan ariketaren arabera. *Ahobiziak* txapa daramaten lagun guzti-guztiei euskaraz egingo die, eta hamaika egunetan zehar txapa ez daramaten guztiei ere lehenengo edo bigarren hitza euskaraz egingo die.



Ez dirudi erraza denik...

Zaila da, bai. Horregatik eskatzen dugu ondo egitea hausnarketa; ondo pentsatu zer izango garen, prestakuntza tailerretara joan, horretarako daude eta, erabakia hartzen laguntzeko. Batzuetan pentsatzen dugu ikastaro hauek daudela izena eman osterako; ez, erabakia hartzen laguntzeko ere badaude. Ondo pentsatu, ondo hausnartu. Nire bikotearekin edo nire lagun kuadrillarekin agian ez naiz izango gai betetzeko; nahiz eta nik euskaraz oso ondo dakidan zaila izango da hamai-ka egunetan egitea, bueno, orduan *belarriprest* moduan emango dut izena. Eta erabaki horrekin esaten duzuna da: niri euskaraz hitz egin, ulertzen dudalako, eta nik euskaraz edo erdaraz erantzun-
go dizuet. *Belarriprest* izanda nik %99an euskaraz egin dezaket, edo erabat akaso, baina badaukat aukera ezeroso sentitzen naizenean edo edozein arrazoiengatik, eta denak dira zilegi, gaztelaniaz egin nahi dudanean egiteko, badaukat aukera hori. *Ahobizi* moduan ematen badugu izena eta ez badugu betetzen aukeratutakoa ariketa desbirtuatzen ari gara, *belarriprestari* edo beste *ahobiziei* ez diegulako uzten euren rola betetzen. Garrantzitsua da bakoitzak ondo egitea hausnar-

keta, eta beldur barik esatea: nik ariketa hau edo bestea egingo dut.

Orain arte zeintzuk dira ugariago?

Arabian, orain arte, *ahobizi* gehiagok eman dute izena. Baina aurreko urteetan beste herri batzuetan egin dira antzeko ekimenak, eta ikusi da *belarriprestei* gehiago kostatzen zaiela animatzea, baina helduko dira. 2016an hamabi herritan egin zen eta 2017an 40 herritan; aurtun 400 herritara heldu gara.

Ezagutzen ez genuen errealitate bat, solaskide berriak ezagutzeko aukera emango du honek?

Bai, noski. Txapa gainean eramateak, batzutan lotsa ematen badigu ere, ikusgarritasuna ematen digu. Ezagutzen ez genituenak ezagutu baino, nire ustez, hainbat pertsona ezagun euskaldunak direla jakingo dugula honen bidez. Eta, ondorioz, euskara-harreman berriak ezagutzeko aukera.

Arabari erreparatuta, alderik dago batetik bestera?

Arabian alde handia dago. Ekimena aurretik ezagutzen zuten kuadrilletan errazago egiten zaie, identifikatuta dituztelako zailtasunak euren errealitateetan. Geografiak ere asko egiten du; adibidez, Añana edo Trebiñun distantzia geografikoa oso handia da herri batzuen eta besteen

artean, eta jende askok ere ez du eskualdean bertan bizitza egiten; egia da errealtatea horietan desberdina dela, zailagoa dela. Errealitate anitzak ditugu Araban; baina garrantzitsua da argi edukitzea herritarrek ari direla hau mugitzen, eta batzordea bertako herritarrek osatzen dutela, ezagutzen dutela bertako errealtatea eta haien prestakuntza eta plangintza ari direla egokitzen haien errealtateari. Arabako Errioxan, esaterako, 15 batzorde sortu dira; batzuk besteak baino handiagoak badira ere, denak doaz aurrera, eta elkarri laguntzeko koordinazio batzordea sortu dute informazioa partekatu eta Euskaraldiaren ingurukoak elkarrekin erabakitzeko; edozein jai eta aukera aprobetxatzen dute izenak jasotzeko.

Gasteizen nolako erantzuna ari da izaten?

Erantzun handia. Dinamizatzailer asko daude, batzordeak sortu dituzte auzoetan, eta gero koordinazio batzorde baten bidez egiten dute lan. Ikusi dute handiak garela, makina handia dela mugitu behar dutena eta ondo planifikatu dute; adibidez, izen-ematea gizarte etxe guztietan ireki dute, eta horrek aukera ematen die gasteiztar guztiei.

Hamaika eguneko ariketaren ostean, zein izango da hurrengo pausoa?

Saiatu beharko gara hamabigarrenean ere mantentzen modu pertsonalean; asmoa da ohiturak aldatzea, eta hamaika egunetan benetan eusten badiogu ariketari, nabarituko dugu hamabigarrenean aldaketa dagoela. *Ahobizi eta belarriprestak* hartu dituzten herrietan ikusi dute aldea badagoela. Errealistak izan behar gara, hamaika egunetako maila ez dugu mantenduko baina badago aldea, eta nabaritzen da; eta horrekin pausotxo bat gehiago edukiko dugu emanda, nahiz eta asko ditugun bidean; ez dugu Euskal Herria euskaldunduko, zoritxarrez, egun batetik bestera, baina pausotxoa nabarituko da, eta berehala 2019ko ekimena helduko da, datoren urteko udazkenari begira.

Oraindik izena eman ez dutenei, zein mezu bidaliko zenieke?

Argi ez badute ere, lasai, gerturatu daitezela euren herriko batzordeetara; haiek lagunduko diete, eta horretarako daude lanean. Informazio asko geratzen da oraindik heltzeko, baina hurbildu, galdetu eta gogoratu ez dela bakarrik egin behar den lan bat; Euskal Herri osoa ibiliko da honetan, babes soziala izango dugu, asko izango gara, eta txapak edonora doazela ikusiko dugu. Beraz, animatu! ■■■

APP ((112)) SOS Deiak

Larrialdietarako kit-a

Larrialdi guztietarako

Eskura ezazu

Google play

Available on the App Store

Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Arabako kazetaritza euskalduna babesteko...

jar ezazu zure alea,
jaso ezazu zure alea



www.alea.eus/harpidetzak

Euskaraz bizitzeko hautua egina dugu



OIER AZKARRAGA

EUSKARALDIA GASTEIZKO DINAMIZATZAILEA



ALEX VADILLO

EUSKARA TEKNIKARIA

Euskaraldia herriz herri eta auzoz auzo antolatzen ari garen honetan, Gasteizen ere martxan gara dagoeneko apurka apurka eta hiri honek dituen zailtasun eta idiosinkrasiarekin aurrera egiteko asmoz.

Gasteizko egoera soziolinguistikoa berezia da alde askotatik. Gasteizek ia 250.000 biztanle ditu. Soilik hamasei urtetik gorako biztanleak kontuan hartzen baditugu, adin tarte horretako 205.140 pertsona bizi dira Gasteizen. Horietatik %20,5 euskaldunak dira, eta %19 ia-euskaldunak. Beste era batera esanda, 16 urtetik gorako gasteiztarren artean 42.123 euskaldun dira eta 81.107 pertsona neurri handiagoan edo txikiagoan euskaraz ulertzen dutenak (euskaldunak + ia euskaldunak). Ez da gutxi, gero! Esan izan da euskaldun horiek guztiak erdal itsaso batean bizi direla. Gehiegi esatea iruditzen zaigu, baina egia da Gasteizko euskaldunak hirian sakabanatuak daudela, sarri elkar ezagutu gabe eta elkarren berri izan gabe. Alde horretatik uste dugu Euskaraldia dinamika egokia dela jauzi kualitatibo bat

emateko. Gasteizek Euskaraldia behar zuela uste dugu.

Bidea jorratzea tokatzen zitzaigun beraz, helburua argi eta garbi ikusirik, edozein puntutaraino ailegatzeko prest. Horrela eman ditugu azken hilabeteak eta horrela gaude Euskaraldia hasteko aste gutxi falta diren honetan.

Hasieratik, Gasteizko euskalgintza osatzen duten kolektibo ezberdinen arteko lanketa egon da mahai gainean, baita instituzioen presentzia ere, lanketa hori Euskaraldia aurrera ateratzea bai, baina gure arteko harremanak sendotzea ere

GASTEIZEK HORRELA KO DINAMIKA BAT BEHAR ZUEN JAUZI KUALITATIBO BAT EMATEKO

GASTEIZEN MILAKA EUSKALDUN GAUDE EUSKARAZ BIZI ETA GOZATZEN JARRAITU NAHI DUGUNAK

bazuen helburu, euskararen hiria sortzeko asmoz.

Egun, Gasteizko auzo gehienetan martxan dira Euskaraldiaren batzordeak, eta zabalpen lanak hasiak dira jadanik. Auzo hauek beharbesteko autonomiarekin ari dira lanean eta behin eta berriz ari dira kalera ateratzen, dinamika berri hau zabaltzeko asmoz. Auzoko jaiak probestu ditugu, azoka egunak, pintxopoteak eta beste hainbat egun eta gune. Aurrerantzean ere hala izango da, imajinazioak ematen digun puntutaraino zabaltzeko prest.

Hainbat ikastetxetan ere batzordeak osatu dira eta euren arteko sare bat osatua dute bakoitzak berean antolatzen duena, besteari baliogarria zaiolakoan. Umeek parte hartu ezin badute ere, ekimen hau indartu dezaketenaren jakitun, haiengana eta bereziki haien senide eta irakasleengana heltzea izan da helburu nagusietakoa hasieratik.

Prentsarekin ere batzartu gara eta gure asmoen berri eman, euren zabalpena badelako etxe askotara ailegatzeko berme, beste batzuen artean eskutan duzun ALEA berezi hau da

lanketa horren adibide,
elkarlanaren adibide.

Gasteizko pertsona
esanguratsungana ere hurbildu
gara. Eurekin egon, Euskaraldia
zer den azaldu, gero haiek
bozgorailu lanak egin ditzaten,
horrela osatu genuen gure
Hamaikakoa, euren esparruetan
nabarmentzekoak ziren kideekin
batera. Hamaikako horretan
famatuekin kontatu dugu, baina
baita jardun sozialean
dihardutenekin, edo euskara
ikasi duten herritarrekin ere,
Gasteiz bezain anitza den taldea
osatu asmoz.

Ez da lan txikia egindakoa
azken hilabete hauetan,
gehienetan, lan isila, auzoz auzo
antolatutakoa, kirol
federazioekin egindakoa...
konpromisoak, atxikipenak
bilduz. Orain, zabalpenaren
fasea irekitzen den honetan,
ahalik eta ahots
indartsuenarekin ekiteko. Ahalik
eta etxe gehienengana heltzeko,
herritar orok jakin dezan
Gasteizen ere izango dela
Euskaraldia azaroaren 23tik
abenduaren 3ra, horren ostean
ere Gasteizen euskara izango
dela, kalean, parkean, lanean,
eskolan, tabernan, lagunartean,
izango dela instituzioan.

Gasteiz euskaraz bizi nahi
duen hiria delako. Gasteizen ere
milaka euskaldun gaudelako,
gure egunerokotasuna euskaraz
bizitzen eta gozatzen jarraitu
nahi dugunak. Gasteiz izan
zelako euskaldun, badelako
euskaldun eta etorkizun
euskalduna izango duelako
dudarik gabe. Hortara goaz eta
zeu ere animatu nahi zaitugu,
gurekin batera, bidaia zoragarri
honetan aurrera egitera.
Helburu ederra dugu markatua
eta bidea ere halakoxea izatea
nahi dugulako! ■

Lazarraga sariak
2018

AZAROAK 8 ARTIUM (GASTEIZ)

BIDALI ZURE PROPOSAMENA urriak 18 baino lehen

www.lanabes.eus

Antolatzaileak: Arriak Foru Aldardia, Diputación Foral de Álava

Sustatzaileak: bai euskara, LANABES

Lizarralde soinua
TXALAPARTA S.L.

Audio Profesionala, Megafonia

www.lizarraldesoinua-txalaparta.eus
txala@txala.euskalnet.net
945 22 69 77
GASTEIZ

EUSKARALDIA

Belarriprest
Ahobizi

Euskara
erein eta hazi
kalean zein lanean askatasunean

LAB **EUSKARALDIA**

Ba al dago bizitzarik hiritik kanpora?



MANEX AGIRRE

EUSKARA TEKNIKARIA

Ez da denbora asko pasa Euskaraldian izena emateko epea ireki zenetik, baina gero eta argiago nabari da azken hilabeteotan lanpetuta izan gaituen ekimenak jada atzera bueltarik ez duela. Iristear daudela hamaika egunak, ate joka ditugula ahobizi eta belarriprestak. Hala ere, orain ez du balio "egin genezakeena egin dugu. Orain, jendeak egin dezala bere zatia" moduko gauzak esateak. Azken txanparen aurreko lasterraldian gauza asko ditugu egiteko oraindik.

Zer (eta nola) egin pentsatzea izan zen Euskaraldiaren batzordeen lehenengo lana. Erronka bikoitza: euskara ulertzen duten ahalik eta arabar gehien parte hartzera bultzatu, eta, horrekin batera, parte hartzerakoan hartu beharreko rolaren gainean 'hezi'. Euskalgintzan urtetan lan eskerga egindako jendearentzat nolabaiteko aldaketa ekarri du horrek: ohituta gaude sinadura, atxikimendu, bertaratzeko, aldegotasun... eske ibiltzen, ez hainbeste parte hartzeko moduaren eta izan beharreko jokabideen gainean herritarrak hezten. Eta, paradoxikoena: parte hartzera sutsu datorren



Arabako batzorde ezberdinetako kideak Oihanederren eginiko topaketan. ALEA

zenbait jenderi nolabaiteko 'galga' jartzeko beharra ere ikusi dugu bazterrotan ("Ni, ahobizi, noski! – Ados, baina badakizu benetan zer esan nahi duen? Zer eskatzen duen hamaika egunez ahobizi izateak?").

Erronka bikoitz horretarako, garrantzitsua da gizartearen fluxuen eta herritarren joeren analisi pausatu samar bat egitea. Lan potoloa dirudi, baina ez da hainbesterako. Gure buruari itxuraz sinpleak diren galderak egiten hasi gaitezke; adibidez, "Zein dira Zigoitiko

jende-bilgune garrantzitsuenak?", edo "Kapaz gara Kanpezuko mapa soziala osatzeko?". Neurri batean, gizartea antolatzen duten harreman-egiturek norainoko osasuna duten aztertzeko

**GARRANTZIA DU
ERDALDUNEI BIDEA
LIBRE UTZI ETA EROSO
SENTITZEN
IRAKASTEAK**

aukera ere ematen du Euskaraldiak (Gure Esku Dago dinamikaren antza handia du horretan). Azken finean, indartsu dauden kanalak aprobeztatzea da kontua. Eta, bai, esan dezakegu, ondorio goiztiarrak ateratzeko beldurrik gabe, Arabako hiriguneetatik kanporako gizarte-sareak trinkoak direla, eta dinamika bizia dutela.

Gorbeialdean ari gara gu, eta Euskaraldiaren izen-emateari begira egindako sustapen-lanean, hainbat jende-bilgune identifikatzea da egin dugun lehenengo lana: administrazio batzarrak, kirol eta kultur elkarte eta erakundeak, gizarte-eragileak, jendaurrera begirako establezimendu eta guneak. Zaletasunen, kokaleku geografikoaren, eguneroko eginbeharren eta aisialdia antolatzeke moduaren arabera egituratutako udalerrri eta herriak aurkitu ditugu. Eta, oso garrantzitsua: gertu ditugu bilgune horiek guztiak, bai fisikoki, baita harremanen mailan ere. Batzorde anitz eta indartsu bat nahikoa da Arabako landa-eremuan bizi diren euskaldunak identifikatu eta beraiegana behar bezala iristeko bideak hautatzeko. Hori, gure alde (eta eremu urbanoetan bizi direnen bekaitz sanorako).

Hala ere, ez ditugu bertan goxo geratzeko motibo larregi. Gurea gertuko jendea da, baina ez da ehuneko ehunean antolatutako jendea. Badaude irismen gutxiko gizarte-taldeak, balizko parte-hartzaileak. Bide 'ofizialik' ez badago, bestelakoak ibili behar dira beraiegana iristeko, ariketa benetan 'masiboa' izatea nahi badugu. Eta, horrekin batera, parte hartuko dutenentzat

terrenoa prestatu beharra ere badago: parte hartzaileen formazioari garrantzia handia ari gara ematen, eta ez hainbestekoa arrazoi linguistikoengatik (euskara ez ulertzeagatik) parte hartuko ez

dutenen formazioari. Gurean (honek eremu urbanoarekin berdintzen gaitu) berebiziko garrantzia du horrek, hau da, erdaldunei, hamaika egunez, bidea libre utzi eta eroso sentitzen irakasteak. ■■■

SAREAN

@ESTITXUUGARTE

#euskaraldia

Sare sozialetan ere Euskaraldiaren oihartzuna handia izaten ari da. Norbanakoak zein herrietako batzordeak ekimenaren funtsa eta horren inguruan antolatutako ekimenak zabaltzen ari dira lau haizetara. Umorea eta kritikak ez dira falta. ■■■



MIKEL IRIZAR
@mirizarintxaus

Gaitasuna hartzea eta baldintzak sortzea, biak dira beharrezko hizkuntza gatazkak gainditzeko. Horretara dator @euskaraldia



DAMOKLES
@napar_riot

Hizkuntza zabaltzea hizkuntza defendatzeko modu bat da. Zapaldua den hizkuntza, urte luzeetan zehar ezabatu nahi izan dutena, gure herriaren biziraupenaren berme nagusia. Ez gara folklorea. #Euskaraldia



**XABI MEABE
SARRIEGI**
@xmeabe

Euskaratik eta euskaraz bizi nahi dudalako, nik ere izena eman dut @euskaraldia-n #ahobizi gisa. Animatu zuek ere!!



BERANDUEGI
@beranduegi

Euskaraldiak "Belarrondoko" aurkeztu du, euskararik entzun nahi ez dutenen eskubidea errespetatzeko txapa.



KAXKARABIAS
@KaxkaRabias

Euskaraldia, euskaldunok euskararen erabileran aurrera pausua emateko baliagarria izan daitekeen ekimena, baina hiltunon bizkar gainean ardura guztia kokatzen duenez, arduradun politikoen aurpegia zuritzeko ahalbideratu daitekeena ere.



**ITSASI
EUSKALTEGIA**
@ItsasiEuskaltteg

Ilusioa egiten du izena emateak @euskaraldia



GASTEIZKO IRAKURLE KLUBA



Hitzaldia & Irakurle Klubaren aurkezpena

Urriaren 4a, osteguna

“Bidaia literatura: kazetari mantso baten
arrazoiak eta aitzakiak”

Ander Izagirre

Arratsaldero 19:30etan / 19:30 horas

Koordinatzailea:

Iban Zaldua

Urriaren 25a, osteguna, *Garazi Arrula*

“Gu orduko hauek”,

Txalaparta 2017

Azaroaren 29a, osteguna, *Virginie Despentes*

“King Kong teoria”

Elkar 2017

Abenduaren 20a, osteguna, *Friedrich Dürrenmatt*

“Epailea eta haren borreroa”

Erein-Igela 2018

Urtarrilaren 31a, osteguna, *Aingeru Epaltza*

“Mendi-joak”

Elkar 2017

Otsailaren 28a, osteguna, *Henry James*

“Aspernen paperak”

Igela 2000

Martxoaren 28a, osteguna, *Uxue Alberdi*

“Jenisjoplin”

Susa 2017

Maiatzaren 2a, osteguna, *Leslie Feinberg*

“Mari-mutil handi baten bluesa”

Katakarak 2018

Maiatzaren 30a, osteguna, *Iñaki Irazu*

“Errukiaren saria”

Erein 2018

Ekainaren 27a, osteguna, *Eider Rodriguez*

“Bihotz handiegia”

Susa 2017



geu
ELKARTEA

Osatuz doan albuma

Herrietan eta eskualdeetan errotik sustraitu da Euskaraldia, bereziki ekimenaren antolaketan parte hartzen ari diren ehunka lagunei esker, baina, batez ere, ariketa sozialaren aurpegi izango diren pertsoneri esker. Hamaika *hamaikako* sortu dira plazaz plaza. Euskaraldiaren enbaxadore horiek ekimenaren filosofia zabaltzeko hautua egin dute; eta mandatu hori alaitasunez aurrera eramateko gogoia ere igartzen zaie aurpegieta. Herri txiki baten historia txikian mugarri izateko jaioa den ariketaren albuma osatzen ari dira pixkanaka, baina Euskal Herriko kaleetan hamaika egunez osatzen hasiko den mosaiko sozial berria izango da ikusgarriena. ■

Argazkiak: Euskaraldia.



Bidali zure
argazkiak testu
labur batekin:
erredakzioa@alea.
eus



artepan







Ekaina amaieran aurkeztu zuten Euskaraldia ekimena Gasteizen sustatuko duen taldea. A. MTZ. DE LUNA

Parte hartzeko hamaika arrazoi

Gasteizko enbaxadoreek Euskaraldira modu pertsonalean eta borondatez batzeko dituzten arrazoiak berri eman dute; merkatari, enpresari, kirolari, erretiratu edota kulturarekin lotutako lagunak daude tartean.

MIRIAN BITERI GASTEIZ

Euskal Herriko gainerako txokoetan bezala, Gasteizen ere baditu bere enbaxadoreak Euskaraldia ekimenak. Honako hauek osatzen dute Arabako hiriburuko hamaikakoa: Edurne Parro (Aenkomer merkatari elkarte), Martin Agirregabiria (Alaves taldeko jokalaria), Karmele Jaio (idazlea), Marina Sagastizabal (mugimendu feministako kidea), Paul Urkijo (zinemagilea), Askoa Etxebarrieta *La Pulga* (artista), Gorka Ortiz de Urbina

(Zeledon), Iñaki Garmendia (EGA Master), Itziar Azpeitia (kazetaria), Carlos Villalba (erretiratua) eta Natasha Rueda (Goian elkarteko kidea).

Modu pertsonalean eta borondatez Euskaraldian parte hartzea erabaki dute guztiek, Belarriprest eta Ahobizi rolen bitartez. Batzuek ama hizkuntza dute euskara, beste batzuek, berriz, helduak direla ekin diote euskara ikasteari. Modu batean edo bestean, denek dute argi Gasteizko egoerak azken urteotan hobera egin duen

arren, oraindik ere asko dagoela egiteko. Euskararen erabilera sustatu beharra dagoela uste dute; arlo guztietan sustatzearen aldekoak dira, gainera: etxean, lagunartean, kalean, lanean, administrazioan zein kormertzioetan. Kontua erabiltzea da, bakoitzaren maila edozein izanda ere.

Euskaraldira batzeko dituzten arrazoiak azaltzearekin batera, hemendik aurrera egingo dituzten ekarpenen eta saiakeren berri ere eman diote ALEAri. ■■■



Edurne Parro **Aenkomer merkatari elk.**

"Euskara gure kultura, gure hizkuntza da; besteengandik bereizteko aukera bat. Gero eta jende gehiagok daki, eta azken urteetan kaleko egoera eta paisaia linguistikoa aldatzen ari direla uste dut. Baina Gasteizen pausu gehiago eman behar dugu. Bi neurri hartu behar dira kontuan: batetik,

gazteek badakite euskara eta erabilera zabaltzeko dezaten bultzatu behar dugu; bestetik, baliteke jendeak euskaraz ez jakitea eta egoera hori aldatzen hasteko pausu gehiago eman behar dira. Esate baterako, formazioa eskaintzea, ikastaroak ematea... Nik lanean bakarrik erabiltzen dut normalean, eta hor daukat arazoa. Besteak euskaraz badakiela dakidanean, saiatzen naiz".



Itziar Azpeitia **Kazetaria**

"Euskara nire nortasuna da, nire historiarekin lotzen nauen sustraia, eta hortik aurrera zubi bat da. Duela 30 urte etorri nintzen Gasteizera, eta garai hartan kalean euskaraz entzuten bazenuen buelta ematen zenuen, eta zuk norbaitekin euskaraz egiten bazenuen jendea begira

geratzen zen. Eta orain, gutxien espero duzun tokian euskaldun bat topatzen duzu. Hori bai, erderaren aldean oraindik txikia da. Horren aurrean, erabili eta erabili egin behar da; euskaldunak azaleratu egin behar gara. Gasteizen euskara plaza nagusira atera behar dugu, eta horretan lagundu nahi dut. Ni *ahobizi* izango naiz, baina nire inguruan *belarriprest* mordoa topatzeko desiratzen nago".



Iñaki Garmendia **Enpresaria**

"Euskara ama hizkuntza da. Lehenengo ikasi nuena. Izan ere, 3 urterekin ikastolara joan nintzen arte, beste hizkuntzarik ez nekien. Egun ere arlo guztietan erabiltzen dut: etxean, kalean eta baita enpresan ere. Arduratzen nauen gauza bat zera da: gu txikiak ginenean gure

euskararen parte handi bat ETB-ri esker eta bertako marrazki bizidunei esker lortu dugu. Baina horrek protagonismoa galdu du, umeei badituzte plataforma gehiago, eta hor oso produktu gutxi daude euskaraz. Arlo horretan badago landu beharreko bide bat. Bestetik, nik neuk euskara erabilera areagotzen lagunduko dut, animatzen den jendeak duen maila izanda ere".

Paul Urkijo Zinemagilea

"Exkixuren abesti batek esaten duen bezala, 'zer da euskara guretzat, amalurraren hitza ez bada'. Erabiltzen ez bada, ez du bizirik iraungo. Nik, telefonoa erantzutean, adibidez, euskara da erabiltzen dudana lehen hitza; eta tabernetan sartzerakoan ere. Euskaraldiari begira, euskaraz

bizi eta euskaraz lan egitearen alde egingo dut, ahal dugun heinean, naturaltasunez hartu. Lanean, esaterako, *Errementari* filmaren erroldajea, batzuekin euskaraz eta besteekin gazteleraz egiten ibili behar izaten nuen, baina ahalik eta gehiena euskaraz egiten saiatzen nintzen. Hala jarraituko dut. Euskara dakiten betiko lagunekin euskaraz egingo dut".



Martin Agirregabiria Alaveseko jokalaria

"Familiarekin, lagun askorekin komunikatzeko dudana hizkuntza da, eta hortaz hizkuntzarik maitatuena. Gasteizen, ekimen ugari egiten ari dira egoera hobetzeko, baina euskara entzun ahal izateko euskaraz egin behar da, eta hori euskaraz dakigunon betebeharra da.

Ama hizkuntza dudanez etxean erabiltzen dugu, eta lagunokin ere ikastolan hasi ginen. Txikitatik erabiltzen dugu, euskaraz ikasi dugu eta gehienok ere gure ikasketak euskaraz egiten jarraitzen dugu. Nik euskaraz dakienarekin euskaraz egiten dut lehenengo hitza. Baina, egia da, bestela, normalean gazteleraz egiten dudala. Aurrerantzean, lehen hitza euskaraz egiten saiatuko naiz".



Carlos Villalba Erretiratua

"Euskara hemengo hizkuntza da. Hemengoa izan ez arren, bertakoa sentitzen naiz, eta, hortaz, euskaraz egiten saiatzea normala da. Dena dela, oraindik ere asko falta zaigu egiteko; euskaldun berriek bereziki ausardia gehiago izan beharko genuke. Kalean gehiago hitz egitea da

kontua. Euskaltegietan, akademiatan badago euskara nahikoa, baina euskara leku publikoetan hitz egitea da falta zaiguna. Nik aukera agertzen den tokietan erabiltzen dut; ilobekin egitea, adibidez, oso inportantea da niretzat. Belarriak prest izatea erabaki dut: beti euskararen aldeko sentsibilitatea erakustea eta Gasteizen antolatzen diren euskarazko ekimenetan euskaraz parte hartzea".





**ITURRIETA
SAGARDOTEGIA**




Bº Arraga, 2 / Aramaio
 ☎ 945 44 53 85 / 685 72 15 93
 jj.iturrieta@Yahoo.com
 iturrietasagardotegia.blogspot.com.es



TXOTX EGIN!!




Servicio de autobus
TREBIÑU Sagardotegia
 ☎ 945 244 852-657 736 599 - ASKARTZA-TREBIÑU



Kuartango
 SAGARDOTEGIA

Servicio de autobus
 Zuhatsu-Kuartango 21
 t.699 747 730 · 945 362 683

Arabak,
arabako sagardoa!



EUSKARALDIA



Karmele Jaio Idazlea

"Nire iraganarekin, egungo ingurunearekin eta etorkizunarekin lotzen nau. Hortaz, nire nortasunaren parte ere bada. Ahal dudan leku guztietan erabiltzen dut, eta lehen hitza ere euskaraz da. Bestalde, Gasteizen erakutsi dugu euskarak aukerak izan ditzakeela."

Ezagutza gero eta handiagoa izanik, erronka erabileran dago; helduago garenok eredu izan behar dugu eta euskaraz bizi behar dugu, atzetik datozenok ikus dezaten posible dela euskaraz bizitzea. *Ahobizi* izatea aukeratu dut, iruditzen zaidalako hizkuntzek duten inertziek eragin handia dutela eta agian joera hori nire inguruan aldatu dezakedalako. Jarrera aktibo bat izatea espero dut *ahobizi* izanez".



Marina Sagastizabal Mugimendu feminista

"Euskara komunikatzeko tresna bat da, eta askotan baliorik ematen ez diogun altxor bat. Beraz, asko dago oraindik egiteko: euskara normalizatu behar da. Erakutsi badela komunikatzeko erabilgarria den hizkuntza bat eta kalean erabil daitekeela. Adibide bat jartzearen, guk

aurten mugimendu feministan itzulpegintza zerbitzua jarri dugu martxan. Bestalde, nire kasuan, saiatzen naiz lehen hitza euskaraz egiten, baina konplexua daukat. Gasteizko komertzio batean edo administrazioan euskaraz egiten saiatu naizenean, erresistentzia bat edo begirada kaxkar bat jaso izan dut, eta konplexu horrek eraginda askotan gazteleraz egiten dut. Horrekin apurtu behar dut".



Natasha Rueda Goian elkarte

"Ni bizi naizen herrialdeko hizkuntza da euskara. Gasteizko egoerari dagokionez, egun hobeto ikusten dut; kalean gehiago entzuten da eta umeek gero eta gehiago erabiltzen dute. Dena dela, egoera hobetu daiteke. Horretarako, jendea ikastera eta gehiago

erabiltzera animatuko nuke. Nik lanean erabiltzen dut, baina momentuz gutxi erabiltzen dut. Orain ari naiz ikasten eta hitz egitea zaila egiten zait. Baina saiatzen naiz eta euskaraz egiten didatenean ahalik eta gehien ulertzen saiatzen naiz. Pixkanaka-pixkanaka. Gero eta jende gehiagori eskatzen diot euskaraz egiteko. Horrez gain, irakurtzen eta musika entzuten saiatzen naiz".



Gorka Ortiz de Urbina Zeledon

"Bizimodu bat da euskara eta Euskal herriko gauzarik garrantzitsuena. Hortaz, nire babes osoa izango du ekimenak. Gasteizen nabaritzen da nire adineko jendeak ez duela horrenbeste erabiltzen, baina gure atzetik datozenek oso ondo egiten dute, eta agian gehiago

erabiltzea da faltan botatzen dudana. Lehen hitza euskaraz egin behar dela pentsatzen dut; ni saiatzen naiz, baina nagoen tokiaren arabera. Adibidez, erosketak egitera noanean, saltzaileak zein adin duen begiratzen dut eta gazteei euskaraz egiten diet; helduagoei, ordea, gazteleraz. Etxean, berriz, emazteak euskara jakin ez arren, semeekin euskaraz egiten dut".



Askoa Etxebarrieta Dantzaria

"Nire hizkuntza bezala sentitzen dut euskara. Kalean jendea euskaraz hitz egiten entzuten da eta ni txikia nintzenean ez zuen inork egiten. Badirudi ikastolan euskara ikasi dugunok helduak egin garela, eta seme-alabekin, adibidez, euskaraz egiten hasi direla. Asko hobetu da, baina

askoz gehiago hobetu behar da. Nola? Guztiok euskara gehiago erabiliz, eta instituzioei dagokionez, euskara ikastea doakoa izaten ahalbidetuz. Nik neuk jendeak erabiltzen duela dakidanean, nik ere egiten dut. Aurrerantzean, baina, hasieratik euskara askoz gehiago erabiliko dut; eta lanean ikuskizunak emateko dei egiten didatenean, euskaraz egiten saiatuko naiz".

{ FUSION ARTE }

TIKI KILIKI

- SURF-ROCK KONTZERTUA
- GRAFIC RECORDING-A

"Hau... Surf Musika da" TIKI KILIKIren eskutik
Zuzenean marrazturiko musika
Urriak 20, larunbete - 19:30



'DELIKATESSEN' MUSIKALA

4 a capella ahots, jai-kabaret batean
Urriak 27, larunbete - 19:30



GUS MARIONETAS: "Inaugurazioa"

Haurrentzako txotxongilo-ikuskizuna,
musika protagonista duena.
Urriak 21, igandea - 18:00



"LA FURIA" KONTZERTUAN

Rap Feminista + DJ + Dantzariak
Urriak 28, igandea - 19:30

LAGUNTZAILEA:
Kultura Saila - Arabako Foru Aldundia



Sarreraren salmenta Kultur Etxean



ALEA aldizkaria ostiralero
 etxean jaso nahi baduzu,
 egin harpidedun urtean 55
 euroren truke. Oso erraza
 da: interneten bertan egin
 dezakezu,
www.alea.eus/aleakideak
 webgunean. Emailaz
 nahiago baduzu, idatziguzu
harpidetzak@alea.eus
 helbidera. Telefonoz ere
 aurkituko gaituzu:
 945-716 009.



Bidali lagunentzat zorion-
mezuak, parte hartu
zozketetan, eman zure
inguruan gertatzen denaren
berri, argitaratu zure
argazkiak, egin iruzkinak...
Erabili ALEAk ematen
dizkizun aukerak! Egin zaitez
Alea.eus webguneko
erabiltzaile edo
erredakzioa@alea.eus
helbidera idatziguzu. Zure
ahotsa entzun nahi dugu.



ALEA zabaltzen zure harri-
 koskorra jarri nahi al duzu?
 Zure ezagunen artean
 harpidetzaren berri eman,
 elkarbanatu edukiak sarean,
 banatu ale bereziak zure
 inguruan (guk emango
 dizkizugu), edota antolatuta
 ALEaren inguruko saio bat
 gurekin batera zure lantokian
 edo herrian. Araban
 euskarazko kazetaritzaren
 alde... **jar ezazu zure alea!!**



Irakurleen txokoa

ZOZKETA BEREZIA

PARTE HARTU www.alea.eus/zozketak



ALEA aldizkariaren harpidetza

Urte oso baterako, 5 harpidetza

Astero aldizkaria zure etxean jaso nahi al duzu eta oraindik ez duzu harpidetzarik egin? Edo dagoeneko bazara harpideduna eta zure inguruko norbaiti harpidetza oparitu nahi al diozu? Laboral Kutxari esker, urte oso baterako doako harpidetza irabazteko aukera daukazu. Eman izena urriaren 30a baino lehen eta azaroaren 2ko aldizkarian ezagutaraziko ditugu irabazleen izenak.



Jaso ALEAren buletina zure e-mailean: alea.eus/buletina

Jarraitu ALEA sare sozialetan:



Babestu Arabako euskarazko kazetaritza, eta jaso ALEA astero zure etxean (55 euro urtean).

Telefonoz: **945 71 60 09**
On-line: alea.eus/harpidetzak
E-mailez: harpidetza@alea.eus

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak ARABAKO ALEAren fitxategi batean sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena kudeatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: harpidetza@alea.eus

AGENDA

Urriaren 12tik 18ra

Euskararen agenda

MUSIKA

AGURAIN Akerbeltz

Ostirala 12, 24:30ean, txosnagunean.

GASTEIZ Morau

Asteartea 16, 20:30ean, Parral tabernan.

HAURRAK

GASTEIZ 'Hunkipuinak'

Emozioei buruzko ipuinak, Erika Liqueeterekin. 3-8 urte bitartean.
Asteartea 16, 18:00etan, Ariznabarra gizarte etxean.

GASTEIZ 'Ze polita zaren'

Ane Gebara kontalariarekin. 4-8 urte bitartean.
Asteazkena 17, 18:00etan, Salburuko gizarte etxean.

LAUDIO Irakurle kluba

Umeentzako irakurle kluba. 8-10 urte bitartean.
Osteguna 18, 18:00etan, udal liburutegian.

IKUS-ENTZUN

GASTEIZ 'Mintzalagunak; sare bat inguruan, bidelagunak alboan'

Mintzalagunen inguruko ikus-entzunezkoaren ostean, mahai-ingurua izango da. Maite Agirre, Naroa Cuesta, Txema Pascual eta Karmele Oriarekin.
Asteazkena 17, 19:00etan, Oihaneder Euskararen Etxean.



AZK

GASTEIZ Inprobisatzaileak

Nazioarteko Inprobisatzaileen Bira. Kuba, Argentina eta Euskal Herriitik. Araceli Argüello, Xabi Igoa, Maialen Lujanbio eta Tomasita Quialarekin. Donostia 2016 Kultur Hiriburua, Mintzola Ahozko Lantegia eta Gasteizko Udalaren eskutik.
Ostirala 12, 19:00etan, Beñat Etxepare antzokian.

GASTEIZ 'Hesirik gabeko kartzela Ghanan'

Gasteiztarrek Arraun the World zikloaren barruan. Maitane Nieto eta Javier Galaperoren argazki aurkezpena.
Asteartea 16, 19:00etan, Arana auzoko Pura Vida tabernan.

BERTSOLARITZA

GASTEIZ Arabako Bazkide Eguna

Amets Arzallus, Andoni Egaña, Maialen Lujanbio eta Asier Otamendi bertsolariekin.
Osteguna 18, 21:00etan, Jimmy Jazzen.

HITZALDIA

ARAMAIO Gorbeialdeko irakurle klub feminista

Feminismoa eta literatura batzen dituen klub ibiltaria.
Astelehena 15, 18:00etatik 20:00etara, kultur etxean.

Jimmy jazz GASTEIZ

URRIA

Os. 12 MORGAN

Lr. 13 THE BABOON SHOW

KIDS TO THE FRONT SHOW



Os. 19 MORGAN

Lr. 20 THE LIMIÑANAS + BIRKÍT

JIMMY JAZZ ERE EUSKARALDIAREKIN BAT

WWW.JIMMYJAZZGASTEIZ.COM

Kutxabank **EUSKARALDIA**rekin



11 egun euskaraz
Izan ahobizi
Izan belarriprest
Eman izena
www.euskaraldia.eus

*Euskaraz hitz eginez
euskaraz entzunez
hizkuntza honekiko
erantzukizunez
elkarrekin euskaraz
egin nahi dugunez
guk Laboral Kutxatik
horri erantzunez
eskertu nahi zaitugu
naturaltasunez.*



EUSKARAZ ERE,
NATURALTASUNEZ